

LANTZIEGO	3.141
Iragarkia	
Udalbatzak, 2005eko maiatzaren 5eko ohiko bilkuran, 1/2005 Kreditu Gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.	
Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Agindua 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako espediente hori hamabost egun baliadun izango da jendaurrean iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egun baliadunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.	
Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartuko da.	
Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.	
Lantziego, 2005eko maiatzaren 9a.– Alkate-lehendakaria, ALFONSO LUIS GONZÁLEZ EGUILAZ.	

NAVARIDAS	3.142
Ediktua	
Izatezko bikoteen erregistroaren arautegia behin betiko onartzea	
Udalaren erregistroan izatezko bikoteak jasotzeko arautegia behin betiko onartzea. Hona hemen testu osoa:	
“AURREKARIAK: Norberaren nortasunaren garapenak eta pertsona guztiek legearen aurrean eduki behar duten berdintasunak, gure ordenamendu juridikoaren eta gizarte-antolamenduaren oinarritzko printzipioak biak, eskatzen dute botere publikoak arduratzea herritarren askatasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen; gainera, botere publikoek eskatzen zaie pertsonen garapen osoa eragozten duten oztopoak kentzea. Gizon eta emakume orok, beren autonomia pertsonala garatzeko, maitasunean oinarritutako bikote iraunkorra osatzeko eskubidea dute, eta, seme-alabekin edo gabe, familia bat osatzeko eskubidea. Botere publikoek dagokie bikote horien babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa ziurtatzea.	
Historian zehar, ezkontza izan da maitasunean oinarritutako bikote iraunkorra osatzeko era, baina gaur egun elkarrekin bizitzeko modu berriak ari dira agertzen, eta bikote asko daude bizitzeko komunitate iraunkorraren alde egiten dutenak, edo horretara behartuta daudenak, hau da, ezkontzaz kanpoko familia osatzen dutenak. Bikote horiei ezin zaie egotzi ezkontutakoek eta familiak sortzen dituztenei baino giza-kalitate eta kalitate sozial eskasagorik beren harreman pertsonaletan, ezta entitate juridiko eskasagorik ere guraso eta seme-alaben arteko harremanetan. Ezkontzaz kanpo eratutako bikote horiek eta horietatik ateratzen diren familiak ezkontutako bikoteek eta familiak duten babes sozial, ekonomiko eta juridiko bera eduki behar dute, eta, horrela, herritar orori bermatuko zaio nortasunaren eta berdintasunaren garapen aserako oinarritzko printzipioekiko errespetua.	
Babes konstituzional horrek maitasunean oinarritutako bikote iraunkorra osatzen duten sexu bereko bikoteak ere hartu behar ditu barnean, jadanik gaitortuta justifikatu ezinako eragozpen moralak. Eragozpen horiek baztertu egin dituzte, eta zenbait kasutan diskriminatu, sexu berekoekin bizitza konpartitzeko eskaera egin duten pertsonak. Egoera hori, bestalde, erabat baztertua izan da gure ordenamendu juridikoan.	
Europako Parlamentuak ere adierazpenak egin ditu bide horietatik, hau da, aukera sexualagatiko diskriminazioarekin bukatzeko gomendioa ematen du, eta sexu bereko bikoteen eskubideak ezkontutakoekin parekatzeko gomendioa (A3-0028/94).	
Legeek eta epaitegiek ezkontzaz kanpoko bikote horientzako (sexu berekoak izan edo ez) eman duten erantzuna ahalke, lotsaz egingadako, osagabea, eta, sarri askotan, kontraesan bezela da, eta horrek herritar askorentzako, gizon zein emakume, legearen aurreko babesik eza ekarri du, eta zenbait injustizia ere, arlo zibilean, administratiboan, sozialean edo penalean.	

LANCIEGO	3.141
Anuncio	
El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 5 de mayo del 2005, acordó la aprobación inicial del expediente de Crédito Adicional número 1/2005.	
De conformidad con lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente, también hábil, a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno.	
El expediente de Crédito Adicional se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentasen reclamaciones.	
Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.	
En Lantziego/Lantziego, a 9 de mayo del 2005.– El Alcalde-Presidente, ALFONSO LUIS GONZÁLEZ EGUILAZ.	

NAVARIDAS	3.142
Edicto	
Aprobación definitiva uniones civiles	
Aprobada definitivamente la Normativa reguladora del Registro Municipal de Uniones Civiles o de Hecho, cuyo texto íntegro es el que sigue:	
“ANTECEDENTES: El libre desarrollo de la personalidad y la igualdad ante la ley, que constituyen principios fundamentales de nuestro ordenamiento jurídico y social, demanda de todos los poderes públicos la promoción de las condiciones para que esa libertad e igualdad de los ciudadanos y ciudadanas de los grupos en que se integran sean reales y efectivas, debiendo ser removidos los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud. Todo hombre y toda mujer en el libre y legítimo ejercicio de su autonomía personal, tienen derecho a constituir, mediante una unión afectiva y estable una comunidad de vida que/ completada o no con hijos de lugar a la creación de una familia, cuya protección social, económica y jurídica deben asegurar los poderes públicos.	
El matrimonio es la forma institucionalizada en la que históricamente se ha manifestado esa unión afectiva y estable, pero hoy los modos de convivencia se expresan de manera muy plural y existen muchas parejas que optan o se ven obligadas por establecer su comunidad permanente de vida, es decir por crear una familia al margen del matrimonio, sin que por ello deban estimarse peor calidad humana y social sus relaciones personales o de menor entidad jurídica a sus obligaciones paterno-materno filiales. Estas parejas, que constituyen uniones no matrimoniales, y las familias que de ellas derivan deben gozar de la misma protección social/ económica y jurídica que las uniones matrimoniales y las familias por ellas originadas/ a fin de garantizar el respeto y la promoción de los antedichos principios fundamentales de libre desarrollo de la personalidad y de igualdad de todos los ciudadanos y ciudadanas.	
Esta protección constitucional debe alcanzar por los mismos fundamentos a uniones estables y afectivas constituidas por parejas del mismo sexo, una vez superados los injustificables reparos morales que han venido marginando, e incluso discriminando a quienes por su opción sexual demandan de una vida en común con otra persona del mismo sexo, situación absolutamente ignorada en nuestro ordenamiento jurídico.	
En este sentido se han manifestado el Parlamento Europeo recomendado el fin de las discriminaciones por motivo de opción sexual y la equiparación a los matrimonios de las parejas formadas por personas del mismo sexo (A3-0028/94).	
La respuesta legal y judicial a esta realidad social de uniones no matrimoniales sean o no del mismo sexo que las personas que los conforman, es tímida, vacilante, incompleta, fragmentaria y en demasiadas ocasiones contradictoria, y ello supone para muchos ciudadanos y ciudadanas situaciones de auténtico desamparo jurídico y de penosas injusticias en ámbitos tan distintos como el civil, el administrativo, el social o el penal.	

Konstituzioak jasotzen duen berdintasunerako eta askatasunerako exigentzia botere publiko guztiei dago zuzenduta; beraz, dagozkien lege-arautegiak ezartzen ez diren bitartean, egokia ematen du Udal administrazioak, berari dagokion eremu txikian, nolabaiteko tresna juridikoa eskaintzea, ezkontzaz kanpo osatuta dauden familien kasuan berdintasuna sustatzeko eta horiei babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa bermatzeko, berdin dio bikoteak sexu berekoak edo desberdinekoak izan, eta hori egitea gaur egungo gure gizartearen errealitatearekin bat datozen aplikazio analogikoak edo interpretazio judizialak baztertu gabe (Kode Zibilaren 3. eta 4. artikulua).

ANTOLAMENDURAKO ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA

I.- ERREGISTROAREN KONTZEPTUA ETA IZAERA

1. artikulua.- Navaridasko Udalaren Izatezko Bikoteen erregistroa administrazio mailakoa da, eta honako arautegiaren eta bere garapenerako ezar daitezkeen gainerako xedapenen arabera aplikatuko da.

Erregistro horretan ezkondu gabeko bikoteek eman dezakete izena, baldin eta arautegi honetan ezartzen diren eran eta baldintzetan osatuta badaude.

II. ERREGISTROAN IZENA EMAN DEZAKETEN HERRITARRAK

2. artikulua.- Erregistroan izena eman dezakete sexu berekoak diren edo ez diren bikoteak, baldin eta era askean eta beren borondatez erabaki badute ezkontzaz kanpoko bikote izatea.

Izatezko bikoteko kide bat, gutxienez, Navaridasko Udalean egongo da errolatuta.

Interesdunak zinpeko aitortpena egin behar du, beste inolako Udal Erregistroan ez dagoela errolatuta dioena.

III.- IZENA EMATEAREN ONDORIOAK

3. artikulua.- Navaridasko Udalari dagokionez, elkarrekin bizi diren ezkontzaz kanpoko bikoteek, sexu berekoak izan edo ez, Izatezko Bikoteen Udal Erregistroan izena emanda badaukate, udalak administrazio mailan ezkonduetako bikoteentzat onartuta dauzkan eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte, udalari dagozkion eskumene-tan.

IV.- IZENA NON EMAN, ETA HORRETARAKO KONTUAN HARTUKO DIREN BALDINTZAK

4. artikulua.- Bikote bakoitzaren lehenengo inskripzioa erregistroaz arduratzen den langilearen aurrean pertsonalki biak batera agertuz egingo da. Horrela aitortuko dute beren arteko ezkontzaz kanpoko elkarbizitza.

5. artikulua.- Honako kasu hauetan ezin izango dute izenik eman bikoteek:

a) Bietako bat emantzipatu gabeko adingabea bada.

b) Biak odol-ahaidetasuneko harremana badute edo zuzeneko adopziozkoa, edo bigarren mailara arteko zeharkako ahaidetasuna badute.

c) Bietako bati ezgaitasuna aitortu bazaio.

d) Bietako batek erregistroko arduradunak antzeman dezakeen nolabaiteko ezgaitasun edo anomalia psikikoren bat badu. Horrelako kasuetan, interesdunak medikuaren agiri bat aurkez dezake, ezkontzaz kanpoko bikote bat osatzeko gai dela dioena.

6. artikulua.- Bikote bakoitzaren inskripzioko lehenengo idazpenean elkarbizitzari buruzko nahi adina datu eta egoera jaso ditzakete izena ematera agertzen direnak.

Bikoteko kideen arteko harreman pertsonalak zein ondareari buruzkoak arautzen dituzten kontratuak eta hitzarmenak ere inskribatu daitezke, baina hitzez hitz.

Aurreko paragrafoan jasotzen diren edukiak bikoteek elkarrekin agertuta egin ditzaketen hurrengo agerpenetan ere bildu daitezke.

V.- BIKOTEA AMAITZEA EDO IRAUNGITZEA

7. artikulua.- Bikotearen amaierari edo iraungitzeari buruzko idazpenak bikotekide batek bakarrik egin ditzake.

VI.- ERREGISTROAREN ERANTZUKIZUNA

8. artikulua.- Udalaren Idazkaritzaren menpe egongo da Erregistroa.

La exigencia constitucional de igualdad y libertad está dirigida a todos los poderes públicos y por ello mientras no se promulguen las disposiciones legales pertinentes y sin perjuicio de la aplicación analógica o de una interpretación judicial acorde a la realidad social de nuestro tiempo (artículos 3 y 4 del Código Civil), parece procedente ofrecer aún en el reducido ámbito de la Administración Municipal, un instrumento jurídico que favorezca la igualdad y garantice la protección social, económica y jurídica de las familias constituidas mediante uniones no matrimoniales, sean o no del mismo sexo las personas que lo forman.

NORMATIVA DE SU ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

I.- CONCEPTO Y CARÁCTER DEL REGISTRO

Artículo 1.- El Registro Municipal de Uniones Civiles del Ayuntamiento de Navaridas, tiene carácter administrativo y se registrará por las presentes Normas Reguladoras y demás disposiciones que puedan dictarse en su desarrollo.

En dicho Registro podrán inscribirse las uniones no matrimoniales de convivencia en 1ª forma y con los requisitos que se establecen en las presentes Normas Reguladoras.

II.- CIUDADANOS QUE PUEDEN ACCEDER AL REGISTRO

Artículo 2.- Podrán instar su inscripción en el Registro todas aquellas parejas sean o no del mismo sexo, que por su libre y pleno consentimiento hayan constituido una unión de convivencia no matrimonial.

Al menos uno de los miembros de la unión de convivencia no matrimonial, deberá estar empadronado en el municipio de Navaridas.

Deberá acreditarse mediante declaración jurada no hallarse incluido en ningún otro Registro Municipal.

III.- EFECTOS DE LA INSCRIPCIÓN

Artículo 3.- En el Ayuntamiento de Navaridas todas las uniones no matrimoniales de convivencia, sean o no del mismo sexo las personas que lo forman, inscritas en el Registro Municipal de Uniones Civiles, tendrán los mismos derechos y obligaciones de carácter administrativo, que dicho Ayuntamiento tenga reconocidos o reconozca para las uniones matrimoniales, en las cuestiones de su competencia.,

IV.- COMPARECENCIA Y CIRCUNSTANCIAS A CONSIDERAR PARA LA INSCRIPCIÓN

Artículo 4.- La primera inscripción de cada pareja se producirá mediante comparecencia personal y conjunta de las dos personas ante el empleado municipal encargado del Registro, para declarar la existencia entre ellas de una unión de convivencia no matrimonial.

Artículo 5.- No procederá la inscripción de la unión de convivencia no matrimonial en los siguientes supuestos:

a) Si alguno de los comparecientes fuera menor de edad no emancipado.

b) Si los comparecientes fueran entre sí parientes por consanguinidad o adopción en línea recta o por consanguinidad en segundo grado colateral.

c) Si alguno de los comparecientes hubiera sido declarado incapaz.

d) Si alguno de los comparecientes estuviera afectado por deficiencias o anomalías psíquicas fácilmente apreciables por el responsable del Registro, fe pudiendo en este caso aportar dictamen médico sobre su aptitud para, consentir en la constitución de una unión de convivencia no matrimonial.

Artículo 6.- En el primer asiento de inscripción de cada pareja, podrán hacerse constar cuantos hechos y circunstancias relativos a su unión manifiesten los comparecientes.

También podrán inscribirse mediante transcripción literal, los contratos y convenios reguladores de las relaciones personales y patrimoniales entre los miembros de la unión.

Los contenidos indicados en el párrafo anterior, podrán ser objeto de inscripción en ulteriores comparecencias conjuntas de la pareja.

V.- TERMINACIÓN O EXTINCIÓN DE LA UNIÓN

Artículo 7.- Las anotaciones que se refieran a la terminación o extinción de la unión, podrán efectuarse a instancia de uno sólo de los miembros de la misma.

VI.- RESPONSABILIDAD DEL REGISTRO

Artículo 8.- El Registro estará a cargo de la Secretaria de la Corporación.

VII.- ERREGISTROAN NOLA GAUZATU: LIBURU OROKORRA ETA LIBURU OSAGARRIA

9. artikulua.- Erregistroa Liburu Orokorra izenekoan gauzatuko da, eta bertan jasoko dira aurreko artikuluetan aipatzen diren idazpenak. Liburua orri mugikorrez, orrika sailkatutakoez eta zigilatutakoez osatuta egongo da, eta dagozkion irekierako eta itxierako eginbideak jasoko ditu izenburuan eta amaieran.
10. artikulua.- Bikote bakoitzaren lehenengo inskripzioa oinarritzko inskripzioa izango da, eta bere ertzetan ezarriko da ondoren Liburu Orokorrean egiten den bikoteari buruzko edozein idazpen.
11. artikulua.- Erregistroak, era berean, Liburu Laguntzaile izeneko izango du, inskribatuen abizenen arabera sailkatua. Liburu Orokorrari eragiten dioten orrialdeak jasoko dira bertan.

VIII. ZIURTAGIRIAK EMATEA ETA INTIMITATEA BABESTEA

12. artikulua.- Erregistroan inskribatutako pertsonen eta familien intimitatea babesteko, idazpenen edukari ez zaio emango inolako publizitatearik. Hortik aparte geratuko dira erregistroko arduradunak ematen dituen ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek, bestalde, bikoteko edozein kidek eskatuta egingo dira, edo epaileek edo justizia epaitegiak eskatuta.
13. artikulua.- Egiten diren idazpen guztiak zein ziurtagiriak erabat dohainik emango dira”.
- Denek jakin dezaten ematen da argitara. Navaridas, bi mila eta bosteko maiatzaren hamarra.– Alkatea, FÉLIX MARTÍNEZ AGUIRIANO.

ERRIBERA BEITIA

3.143

Iragarkia

Udalbatzak, 2005eko apirilaren 26ko bilkuran, Erribera Beitiko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga (2005eko ekitaldia) ordaindu behar dutenen errolda onartzea erabaki zuen. Errolda hori honako iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan jarriko da jendaurrean, interesdunek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzen alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Ordainagiriak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira, erroldaren jendaurreko epea bukatu ondoren.

Dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da argitara.

Erribera Beitia (Rivabellosa), 2005eko maiatzaren 4a.– Alkatea, PEDRO MONTOYA RUIZ.

ERRIBERA BEITIA

3.144

Iragarkia

Erribera Beitiko Udalbatzak, 2005eko apirilaren 26an balio osoz egindako ohiko osoko bilkuran, espedienteetan jasotzen diren diseinuaren araberrako herriko armariari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Hona hemen armariaren deskribapena:

“Armarri zatitu, bata erdibitua; 1.a, urre kolorekoa, hiru begiko harritzko zubia olatu urdin-ilun eta zilar gainean, atxikirik gaztelua, hura ere harritzkoa eta urrez argiztatua, gazteluaren ezkerreko beso urdin ilun eta kolore bereko ezpataduna datzekiola ; 2.a, gorria, ikoroski obala paldoan ipinia eta hamasei beso zilar koloreduna; 3.a, zilarrezkoa, haritza bere kolorekoa zelai berde gainean eta sei izar urdin ilunek inguratzen dutela haren adaburua”.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera. Halaber, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Horretarako hilabete izango du ediktu hau Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erribera Beitia (Rivabellosa), 2005eko maiatzaren 10a.– Alkatea, PEDRO MONTOYA RUIZ.

VII.- MATERIALIZACIÓN DEL REGISTRO: LIBRO GENERAL Y LIBRO AUXILIAR

- Artículo 9.- El Registro se materializará en un Libro General en el que se practicarán las inscripciones a que se refieren los artículos procedentes El Libro estará formado por hojas móviles, foliadas y selladas, y se encabezará y terminará con las correspondientes diligencias de apertura y cierre.
- Artículo 10.- La primera inscripción de cada pareja tendrá el carácter de inscripción básica y al margen de la misma se anotará todo otro asiento que se produzca con posterioridad en el Libro General principal relativo a esa unión.
- Artículo 11.- El Registro tendrá también un Libro Auxiliar ordenado por apellidos de los inscritos en el que se expresará el número de las páginas del Libro General en las que existan anotaciones que les afecten.
- Artículo 12.- Con el fin de garantizar la intimidad personal y familiar de los inscritos en el Registro no se dará publicidad alguna al contenido de los asientos salvo las certificaciones que expida el encargado del Registro a instancia exclusivamente de cualquiera de los miembros de la unión interesada o de los Jueces y Tribunales de Justicia.
- Artículo 13.- Tanto las inscripciones que se practiquen, como las certificaciones que se expidan, serán totalmente gratuitas”.
- Lo que se hace público para general conocimiento y efectos en Navaridas a diez de mayo de dos mil cinco.– El Alcalde, FÉLIX MARTÍNEZ AGUIRIANO.

RIBERA BAJA

3.143

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 26 de abril de 2005, acordó aprobar los padrones correspondientes al Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de Ribera Baja, correspondientes al ejercicio de 2005, por el presente se exponen los mismos a información pública durante el plazo de quince días hábiles, contados a partir de la fecha de publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, a efectos de que los interesados puedan examinarlos y presentar, en su caso, las alegaciones y reclamaciones que consideren oportunas.

El cobro de los mencionados recibos se iniciará una vez transcurridos los plazos de exposición pública, mediante domiciliación bancaria de los mismos.

Lo que se publica a los efectos oportunos.

Ribera Baja (Rivabellosa), a 4 de mayo de 2005.– El Alcalde, PEDRO MONTOYA RUIZ.

RIBERA BAJA

3.144

Anuncio

Habiendo sido aprobado inicialmente por el Ayuntamiento Pleno de Ribera Baja, en sesión ordinaria válidamente celebrada el día 26 de abril de 2005, el Escudo heráldico de este Municipio de Ribera Baja, conforme al diseño que obra en el procedimiento y cuya descripción es como sigue:

“Escudo partido y medio cortado; 1º, de oro, con un puente de piedra de tres ojos, sobre ondas de agua de azul y plata, sumado de un castillo, también de piedra y aclarado de oro. Saliente de la siniestra del castillo, un brazo armado, de azul, con una espada, de lo mismo, en la mano; 2º, de gules, con un aspa de molino, de forma ovalada y en palo, con dieciséis brazos, de plata, y 3º, de plata, con un roble de su color, terrasado de sinople y rodeada su copa de seis estrellas de azul.”

Lo que se hace público para general conocimiento y a efectos de que durante el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de este edicto en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, puedan presentarse las reclamaciones y observaciones pertinentes en contra del citado acuerdo.

Ribera Baja (Rivabellosa), a 10 de mayo de 2005.– El Alcalde, PEDRO MONTOYA RUIZ.